

BALOREZKO PROPOSAMENA

Merx enpresaren helburua da gure bezeroei segurtasuna bermatzea, gure produktu bakoitzaren teknologia aurrerakoiaren bidez, eta, behar izanez gero, laguntza profesionala eskatu ahal izango dute inolako eragozpenik gabe. Gure salgaiak, jendetzari begira ia ikusezina den teknologia aurreratuko mikrotxipa izateaz gain, erosle mota askori zuzenduta daude, hau da, merkatuari begira dugun hedadura nahiko zabala da. Era berean, gure produktuen diseinua bakarra da, eta, gainera, gure produktu-mota bakoitzeko hainbat diseinu eskaintzen dira, bezeroak berak gehien nahi duena hauta dezan. Horrez gain, azpimarratzekoa da gure produktuak eskuz eginda daudela.

Bestalde, bezeroari doako aseguru bat eskainiko zaio, erosketa egin eta urtebetera iraungiko dena. Urte horren ondoren, enpresa gisa eskaintzen ditugun baina ordaindu beharko dituzten beste aseguru batzuk kontratatu ahal izango dituzte.